

ABERRI EGUNA 2008

ELAk Aberri Eguna dela eta nazio-prozesuari buruz egiten duen hausnarketa eguneratu ohi du. Izan ere, lan-munduari nazio- eta klase-helburuei erantzun nahi baitie. Hauxe da sindikatuak nazio eraikuntzara egiten duen ekarpena, eta ELAk eraikuntza horrekiko konpromisoa berritu nahi du.

Egun honek hainbat gauza adierazten du: borondate politiko bat –Zazpiak Bat–, baita herri nortasunari eusteko eta gure garapenerako tresnak askatasunez geureganatzeko nahia ere. Borondate hortan bat gatoz Europako beste herri batzurekin; hauetako zenbait burujabetza lortzen ari dira: azken urteetan 18k independentzia lortu dute (Kosovok duela aste gutxi); 6 dagoeneko Europako Batasunean daude, eta beste batzuk, Eskoziak kasu, luze gabe lor lezakete.

Borondate hori gure kasuan bi estatuk oztopatzen dute, eta horrexegatik egun hau hori gauzatzea posible egin lezakeen batasunerako eta oinarritzko adostasunerako deiadar bihurtzen da. Adostasunak ez luke burujabetzaren aldeko erakunde desberdinen nortasuna lausotu behar; asmoa beste bat litzateke, erakunde anitz horiek batu ahal dituen posible egitea: gure herriarentzako aurrerapide eta askatasunezko etorkizuna. Horrenbestez, erakunde bakoitzaren oinarri militanteei ilusioa eman diezaiekeen adostasuna.

Gaurko egoeran mugimendu abertzalearen oinarriak garrik gabe daudela ikusten dugu. ELAk, dagokion heinean, sentipen hori eragin izanaren ardura ere onartzen du. Gure ustez horren zergatia batasunik eza da, eta honek berarekin dakarren ahulezia. Honen adierazgarririk argiena, espainiar eta frantses estatuek joera zentralizatzaile, antidemokratiko eta errepresiboak nola areagotzen dituzten.

EAEko zerga-sistemari egindako eraso (sistemaren erabilpen antisoziala gorabehera), Nafarroako gobernu-itun antieuskalduna edota Iparraldeko Laborantza Ganbararen moduko ekimenen aurkako oldar administratibo eta penala dira estatu horien joera zentralizatzaile, jakobinoaren isla batzuk.

Halaber, botereen banaketa ere desagertu egin da; hauek estatu-kontsentsuaren funtzio bihurtu dira. Komunikabide eta politikariak inoiz ikusi gabeko moduan auziperatzen dituzte... Zerrendak eta alderdiak ilegalizatzen dituzte eta buruzagiak espetxeratu, horrela milaka herritarren parte hartze politikorako eskubideak urratzen dituztela... Gizarte eta kulturako militanteek ere talde armatuko kide edo lankide direlako akusazioa eta kondena jasaten dute... Publizitatea bilatzea beste motiborik gabe atxilotzen dute jendea...

Aipatu beharra dago, gainera, bake-prozesuaren aurkako jarrera agertu dutela espainiar sektore zabalek (epaile, politikari, elizgizon eta gizarte-eragileak), baita elkarrizketen porrotaren ostean etorri den errepresio oldea ere, gobernu espainiarrak eta frantsesak gidatu eta ehundaka atxilotze, inkomunikazio eta tortura kasu ekarri dituen. Horrek guztiak, beste jokabide askorekin batera, adierazten du berme politiko eta judizialen erregimena ez dagoela behar bezala finkatuta. Are larriagoa da, ordea, estatu biei ez dietela nazioartean kargu hartzen, “barne arazoak” konpontzeko eskuak libre uzten baitaizkie.

Joera totalitario hauek mundu abertzalean hausnarketa azkartzea eragin beharko lukete. Are gehiago kontutan izanik bere erreferentzia estrategiko nagusiak zein antzu diren ikusirik; hauek gero eta agortuago ageri dira, estatuek beren burua legitimatu eta ezaugarri errepresibo gordinagoak aukeratzeko erabiltzen baitituzte.

Zertaz ari gara? Lehenik, ETAk su-etena hausteko hartu zuen erabakiaz; honek bizikidetzak hondatzen du eta nazio-prozesuak behar dituen balioen aurkakoak sustatzen ditu (gizarte zibila, bat egitea, ilusioa, militantzia...). Egia da Zapaterok oso zeken jokatu zuela su-etena administratzerakoan, itun antiterrorista bat ere mugitu gabe eta beti iritziz publikoari begira. Baina mugimendu abertzalea itotzen duen estrategia itxi hori baztertu beharra dago.

Duela gutxi Arrasaten gertatu den militante sozialista baten hilketak drama gizatiar eta sozial onartezina da, eta gizarte honek ezin du gehiago eremu politiko horretara kondenatuta egon. Honelako ekintzek gizartea alferrik zatikatzen dute; gatazkaren alderdi historiko-politikoak ezkututzen digute (gainera, ekintza horien ardura dutenek gatazka horren baitan kokatuz zuri nahi dituzte maltzurki), eta herri honetako aniztasun politikoa aintzat hartuko duen aldaketa politiko baten alde zintzo diharduten sektore abertzaleak etsipenera eramaten ditu.

ELAren iritziz, zapuztu zen elkarrizketa prozesua bi ondorio nagusi ateratzeko baliatu beharko litzateke: lehena, behin-betiko onartzea PSOEk, PPK bezala, ez duela sistema konstituzionala

berrikusiko; eta bigarrena, dinamika armatuaren amaiera eta gatazkaren konponbidea ezin direla aldi berean etorri. Bi kontuetan pauso, subjektu, ibilbide eta kode desberdinak erabili behar dira. Horregatik, ELAren ustez jarduera armatua behin betiko bertan behera uzteak irekiko lituzkeen aukera zibil eta politikoei erreparatu behar zaie.

Bigarren erreferentzia antzua Lehendakariak egindako proposamena dugu. Proposamen horri ELAk ez dio sinesgarri irizten, berarekin lotuta dagoen gobernu-kudeaketa arlo sozialean etsigarria baita, eta antidemokratikoa, izan ere joko-arauak zapuztu egin baitituzte sektore publikoko negozioak kolektiboan eta esparru instituzionalean minoria sindikalekin elkar hartuta. Gainera, gobernu honen balantzea autogobernuari dagokionez negargarria da: ez du jarrera tinkorik agertu berari eskualdatutako ahalmenen aldebakarreko berrikuspena gertatu denean; estatuari epe bat eman zion eta eskualdatu gabeko ahalmenak bere aldetik garatuko zituelako mehatxua bota zuen, gero horren kostua Kupidotik kenduko zuela esanez, baina mehatxua ez zuen bete; edota hala iragarri arren, parlamentu-egoitzan onartutako estatutu politiko berriaren proposamenari buruzko kontsulta ez zuen egin.

Autogobernuaren bilakaeraren adibide dugu Hobetuzen inguruan aurten gertatutakoa: Eusko Jaurilaritzak eskumena oso-osorik hartzeko zeukan jarrera politiko historikoa baztertu eta gero gehiengo sindikal abertzalea ahaztu egin du. Gertakari honek adierazten du gobernu honen tentsio politiko eza, prestakuntza eredu eragingarria izateari uko egin izana eta euskal patronalaren eta espainiar sindikatuen alde diru-funtsak lortzeko egin diren tratuak; eredu honek lan-munduaren interesekin ez dauka zerikusirik.

ELAk oraindik kontsultaren aldeko postura egiten du. Areago, instituzioetan isla izanez gero prozesu subiranista bat sendoagoa izango dela uste du. Baina bistan da prozesu hori galarazteko edozertarako prest dagoen estatuari aurre egite aldera lehendakariak ez dituela aliantza sozial eta politikoak indartu nahi. Aitzitik, bere eguneroko jardun politikoan argi uzten du aldaketa politikoaren aurkako jarrerarik tinkoena duten enpresa eta politika munduko sektoreekin ederki moldatzen dela. Horrenbestez, agintean dauden indar nazionalisten diskurtso "subiranista" estatuarentzat erabilgarria da, horrekin elikatzen baitu erretorika patriotiko espainola, eguneroko politikan kudeaketa esparru konkretu eta mugatuak eztabaidatzen ari diren arren. Gure ustez, subiranismoa ezin da izan hauteskunde-lehiarako ikur huts, hots, zinezko politikarekin loturarik gabeko zerbitu.

Aberri Egun honeta aipatu beharra dago ere Gasteizko gobernuaren erabaki bat: duela gutxi Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren bitartez sindikatuoi eskatu digu igande eta jai-egunetako atsedenen aldeko gure kanpainari buruzko hainbat eta hainbat informazio ezkutu bidaltzeko. Eskari inquisitorial honek askatasun sindikala urratzen du, eta halaxe salatu du ELAk Europako Sindikatuen Konfederazioan. Honelako jokabide bat Europako historia sozialean ez da egundo ezagutu.

Hortaz, ELAren irudiko, bi estrategiak, armatuak eta neoestatutista-antisozialak, oso desberdinak izanagatik, esparru politikoan polarizazio antzura daramate, eta esparru sozialean, berriz, oinarri abertzale herrikioen desmobilizazioa dakarte. Horregatik uste dugu lehenbailehen iritsi behar dela nazio-prozesuari buruzko oinarritzko akordioetara.

Aurten beteko dira hamar urte Lizarra-Garaziko Adierazpena kaleratu zenetik. ELA ziur dago orduko hura dela gaur gehiengoaren ilusioa piz dezakeen muga estrategiko bakarra. Badakigu, gainera, estatuak indarge uzten dituen hipotesi bakarra indar subiranisten bat egitea dela, huts-hutsean zibila eta demokratikoa. Espainiar eta frantses estatuak eraso egin zioten hipotesi honi duela hamar urte, eta hala gertatu da 2007an ere. Hortxe dago PPK eta PSOEkin zein erantzun gogorra eman dioten gobernu nafarrean indar euskaltzale batek parte hartzeko aukera aipatze hutsari. Era berekoak dira Iparraldeko mugimendu abertzaleari egiten dizkieten erasoak, mugimendu horrek indar politiko frantsesen oinarri sozialekin eta hautetsiekin ekimenak batera eginagatik ere. Hipotesi zibil eta demokratikoa, gutxieneko oinarri batzutan finkatua, ez da soilik aukerarik hoberena; gehiago esan liteke, burujabetzarantz eramango gaituen prozesu bati ekiteko bide bakarra da. Hau posible egin behar dugu.

ELAk bere militante guztiei gonbitea luzatzen die beren nazio- eta klase-konpromisoari eutsi diezaioten. Sindikatu honek eraikuntza nazionalerako egin dezakeen ekarpenik behinena elkartasun eta justiziazko balioak sustatuko dituen sare sozial bat eratzea da.

Gora Euskal Herria askatuta!

2008ko Aberri Eguna